



Bergara, 2020ko uztailak 2

(BATZAR NAGUSIAK BERGARAN)

Batzar Nagusietako lehendakaria, ahaldun nagusia eta gainerako diputatuak, batzarkideak, Bergarako korporazio kideak, ongi etorri Bergarako Udaletxera.

Bergaran gaude, historia luzea eta emankorra duen eta Gipuzkoaren sorrerarekin oso lotuta dagoen udalerrian.

XI. mende erdialdian, Huescako San Juan de La Peñako monasterioari lotuta daude bai Bergara eta bai Gipuzkoa, Ipuskoa bezela orduan, lehen aipamenak. Euskal Herritar guztiok Iruñako erreinuko parte ginen sasoi hartan.

Denbora bat Aitzorrotzeko tenentzian Bizkaiko jaunaren lurretan eman eta gero, eta argitzeko badago be segurasko indarrez gaztelako erreinuko parte bihurtu ondoren, eratu zan Bergarako hiribildua 1268xan. Gutxi geroagotik izan zeban bergarak ordezkaritza bat batzar nagusien aurrekari izan zien Gipuzkoako hermandadetan.

Presentzia bai, baina sasoi erabakigunetan Bergararren ahotsak ez zuen ohiartzun handirik, boterea pilatzen zuten Tolosa edo Arrasate bezelako hiribilduen aurrean.

Hurrengo mendeetan, neurri handi baten Ameriken konkistak eta ustiapenak eskainitako baldintzei esker garapen handia izan zan Gipuzkoan eta gure inguruko bailaretan gaur egungo industria metalinguakeren hazia erein zan, Burdinolak.

Regimen zahar haren gabeziak nabarmentzen zitxuen matxinaden sasoi eta krisi sakonen artean sekulako garrantzia eta protagonismoa hartu zeban Bergarak, eta ilustrazio sasoi Europa mailako leku errefente izan zan ezagutza eta berrikuntzaren sorleku bihurtuta.

Gipuzkoako industrializazio prozesua markauko zeban lehenengo karlistadaren bukaerak. Oindala minutu gutxi lehendakariak, ahaldun nagusiak eta hirurok erabili dogun mahai horretan bertan sinatu zeben Espartero eta Marotok gerra bukatutzat emoten zeban konbeniua. Hurrengo hamarkedatako Industrializazioan eta ekarri zeban eraldaketa sozialian be gune klabia izan zan Bergara, Bergarako urdinak mundu osoan ezagun itxeraino. Gaur egun industriak duen presentzia gure bailaran orduko herentzia eta geroko lan gogorraren emaitza da.

Tamalez aurreko hamarkadetan desindustrializazio prozesuak be gertutik ezagutu ditzugu eta ehundaka laguni lana emoten zotzen empresa handiak ixten ikusi ditzugu, krisi sozialak be gertutik bizitza.

Dana dala Bergarak jakin du bere bidea egiten eta Gipuzkoan erreferentzialtasuna lortzen. Bizitza zikloek osatzen dute eta aipatu bezala gure historia propioa ere halakoa da, gailur eta lautadez osatutakoa.

Orain, beste behin, herritarrek ilusionatu eta iparra berreskuratzeko txanda da. Gipuzkoan gure herria eta bailarari erdigunean kokatzeko arrazoiak emanez, aurrera begira dagoen jendarterako pausuak emanez.

Ibilbide honetan batzuetan urrun ikusi eta somatu izan dugu Gipuzkoa eta gurea ere baden lurralde historikoaren erabakigunea. Garai batean urrun izan gara fisikoki eta gaur egun distantziak asko laburtu badira ere periferian geratzen gara batzuetan. Horregatik da guretzat horren garrantzitsua gipuzkoako batzar nagusietako ordezkariak gaur hemen izatea. Bertatik bertara ezagutu eta bizitzen dena presentego izaten baita beti.

Gure lurralde Historikoaren garrantzia eta batasuna azpimarratzen duen ekitaldia ospatzera gatz gaur eta zinez honakoa garai aproposa da hori presente izan eta aldarrikatzeko.

Covid19k gogor kolpatu gaitu, beste lurralde asko bezala; herritar batzuk dagoeneko ez daude gure artean, beste askoren animoan, ekonomian eta bizimoduan eragin latza izan du, oraindik ez ditzugu ekarritako ondorio guztiak neurtu ahal izan. Honi guztiari buelta eman eta kaltetuenei aurrera egiten lagundu eta aukerak eskaintzeko ordua da. Horretarako ezinbestekoa da erakunde, eragile eta norbanakoak elkartu eta guztiok batera norabide berean indarra egitea.

Are gehiago, jasan dugun kolpe hau gure gizartea oinarri sendoekin berreraikitzeke aukera da; guztiontzako jasangarria izango dena, sozialagoa izango dena, kohesionatuagoa izango dena.

Gure lurralde historikoak, Gipuzkoak, ongizatearen eta gizarte orekaren aldarria izan du luzaroan eta gauza asko lortu dira, baina badugu zer defendatu eta zer hobetu oraindik. Bada, baliatu dezagun minak eta galerak gizarte osoan piztutako elkartasun sentimendua iparra ongizatean jarri eta gure lurralde historikoari bultzada berria emateke.

Mila esker,